

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

643/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegia administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —643/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari da; 16254399 C nortasun-agiriaren titularrak aurkeztu zuen errekurtsoa, behin betiko baja ezestearen aurkako berraztertze errekurtsoa ezezten zioneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko abuztuaren 6ko ebazpenaren kontra, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko maiatzaren 15ean hartutako erabakiaren kontra, zeinaren bidez Gasteizko Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 86-89. artikulua bertan behera geratu baitziren. Horrenbestez, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bederatzi eguneko epea jarri da, beren interesetarako komenigarritzat jotzen dutenek bertara ager daitezen, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 27an

Udal legelaria

CRISTINA NÚÑEZ SASETA